

AXERI DANTZAK 25/50!

Andoaingo Axeri Dantza: berregitea, usadioek irauteko beharrezko giltza

Ekainaren 24an, San Joan egunez, Andoainen egiten den dantza da axeri dantza, 1975ean berreskuratu zuten, duela mende erdi. «Andoainen eta Adunan dantzatzeko da, eta musika, joan-etorriak, jolasak, zirikal-diak eta harrapaketak batzen dituen pieza da» zehazten dute bertan ibilitakoek. Usadioaren berreskurapena ospatzeko urte biribila zuten aurtengoa, baina are biribilagoa bihurtzen du beste mugarri batek: duela 25 urte, 2000. urtean lehen aldiz dantzatu zuten emakumeek. Garai bateko ohiturak etengabe berregiten dabilzanaren lekuko da hori ere.

Entsegu baten aurretik elkartu gara Izaskun Beraza eta

JENDARTEA / Iraitz MATEO GOGORZA

Duela 50 urte berregin zuten Andoaingo axeri dantza, duela 25 urte hartu zuten parte lehenengoz emakumeek, eta aurtengoa, inoizko axeri gehien aterako dira plazara San Joan egunez. Usadioek bizirik iraun dezaten, berregiteak duen garrantziaz mintzatu dira Izaskun Beraza eta Ander Setien, Andoaingo bi axeri.

Ander Setienekin, Andoaingo Bastero Kulturgunean atondu duten erakusketan (ekainaren 27ra arte dago ikusgai), eta erakusketa bisitatzearekin batera, «dudarik gabe» beraien urteko «egun gogokoenetako bat» errepasatu dugu. Urki Dantza Taldeko ki-deak dira biak, baina batez

ere «axeriak» bihurtzen dira ekaina heldu eta 24ko prestaketa lanak abiatzean.

50. urteurrenak ematen dio izenburua erakusketari, baina zertan 50 urte? «Berregitearen» kontzeptua darabil Berazak, «ez zen berreskuratuko garai batean zen bezala, gogoratzen zutenarekin eta zituzten datue-

Izaskun Beraza eta Ander Setien aurten ere axeri dantzako taldean buru belarri lanean ibili dira.
Andoni CANELLADA | FOKU

kin axeri dantza berregin zuten, berreskuratu baino gehiago». Duela berrogeita hamar urte, ba omen zeuden Adunan agure batzuk axeri dantza gogoratzen zutenak, txistua inoiz jo zutenen bat, partituraren bat zutenak... Eta Andoainen, hori berreskuratzeke prest zegoen Lizar Makil dantza taldea; «Horrelako usadioek irauten badute, norbaitek horretan lan egin duelako da, bere ahalegina jarri duelako transmisiorako eta bizirik mantentzeko; gure kasuan Lizar Makilekoak izan ziren». Kontatu zutenei eta jaso zutenei aitortza egiteko urteurrena «aitzakia ezin hobea» izaki, urte osoko egitaraua antolatu dute.

Eta 25? 2000. urtean dantzatu zuten lehen aldiz emakumeek, ahalegina lehenagotik zetorren, ordea: «Hiru urte lehenago gorputza jarri eta planto egin zuten hainbat emakumek, entsegu batera joan eta beraiek ere dantza egin nahi zutela esanez. Gainera, ez zegoen inon idatzita ezin zutenik, karteletan “zatoz entseatzera” jartzen zuen eta. Berandu zela eta ez zela posible erantzun zieten, hurrengo urtean joango ez zirenaren esperantzarekin». Hurrengo urtean ez, baina 2000. urtean berriro esan zuten dantzatu egin nahi zutela, «gatazka egon zen, jasotako erantzuna batzuentzat oso bortitza izan zen, baina hala ere, bilkura bat egin eta emakumeek parte hartu behar zutela erabaki zuten. Ordura arte dantzatzeko zuten batzuek uztea erabaki zuten eta haurtuta bat eman zen, baina emakumeak plazan dantzatzeko hasi ziren». Horregatik urteurren bikoitza, «balentria» horri ere lekua eman eta aitortza egin behar ziotela argi zuten.



HERRIKO PARTAIDE


«Garai batean egurrezko ohol-tza jartzen zen plazan eta nire osaba ilintia errentzen ibiltzen zen, berarekin egoten nintzen, eta nire lehen oroitzapenak horkoak dira, oholtzaren azpitik begira, hankak bakarrik ikusiko nituen. Eta ondoren, Urki dantza taldean aritzen nintzelarik, erakartzen ninduen dantzak eta animatu egin nintzen», horrelaxe hurbildu zen Beraza axeri izatera. Setienek ere txikitatik ezagutu du axeri dantza herriko plazan, aita ere txistularia du eta aspaldidanik izan da partaide: «Dantza taldetik eta familiatik iritsi nintzen axeri dantzara, txikitatik ikusi izan dut eta aukera suertatu zen urtean parte hartu nuen. Nik ezagutu dudana, halere, axeri dantza berria da, nik bizitako aldaketa bakarra kopuruarena izan da, gero eta gehiago gara».

Kopurua azken urteetan gorantz doa etengabe, eta aurten historiako marka guztiak gaindituko dituzte: 84 axerik dantzatuko dute plazan. Aitortu dute kasualitatez elkartu gara la «dantzari izandako bi axerirekin», baina parte hartzeko ez dagoela dantzaria izan beharrik. Eta jarraian zehaztu dute: «Askotan aipatzen dugu axeriak garelako dantzariak baino gehiago, eta gainera, musika entzun eta mugitzen garen momentutik, denok gara dantzariak».

Plazara ateratzeko baldintza, beraz, entseguetan parte hartzea da: «Dantzari ez diren batzuk etortzen dira konplexuekin, baina lehenengo egunean joaten zaizkie. Eta txalotzekoa da dantzarekiko erakusten duten konpromisoa ere. Eta batez ere, aipatu behar da axeri dantza ez litzatekeela axeridantza izango oso formala ba-



Goiko argazkian, axeri dantza berreskuratu ostean, gizonak bakarrik dantzatzaren zuten garaiko irudia. Lerro hauen eskuinetara, 2000. urtean lehen aldiz emakumeek dantzatu zuteneko irudia, Junkal Korrotxano izan zen zortzikoa dantzatzaren lehen emakumea. AXERI-DANTZA TALDEA



Mugarria izan zen 2000. urtea: «Gorputza jarri eta planto egin zuten hainbat emakumek, entsegu batera joan eta beraiek ere dantza egin nahi zutela esanez»

«Askotan aipatzen dugu axeriak garelako dantzariak baino gehiago, eta gainera, musika entzun eta mugitzen garen momentutik, denok gara dantzariak»

litz». Belaunaldi ezberdineta-ko jendea elkartzen da, urte guztian bestela elkartuko ez litzatekeena, eta taldeko giro on horrek urtetik urtera jarraitzeko eusten duela pentsatzen dute.

Dantza eta jolasa nahasten dira ordubetez San Joan egunean Andoaingo plazan. Izan ere, piezaren barnean «dantza

edota jolas» ezberdinak dau-
de. Azaltzen dute askok «erri-
tu iniziatiko» gisa definitu
izan dutela axeri dantza, eta
erritual horretan egiteko ez-
berdinak josten direla.

«Orratzaren jokoa da dan-
tzaren zati bat, esaterako. Ber-
tan, denak ilaran jartzen gara
eta urte horretan lehenengo
aldiz axeria izango den pertso-
na altuena bestean hanken az-
pitik pasatzen da guk musika-
ren erritmoan hankak ireki eta
ixten ditugun bitartean. Zutik
gaudenok zirikatatu egiten dugu
eta joko izaera ematen diogu,
horrela, pasa behar duenean
traba eginez. Puntara iristen
denean, bertan dagoenak la-
gundu egiten dio; garai batean
orduan “gizontzen” zirela sin-
bolizatzen zuten, eta gaur egu-
nean axeri partaide izatera pa-
satzen dela irudikatzen dugu»,
azaldu dute.

Zati horretan, esaterako, bi
aldaketa egin zituzten: lehen
beti altuena pasatzen zen, ia
beti pertsona bera, eta orain,
erritu iniziatiko horri lotuta,
taldera batzen den altuena.
Lehen gizontzearen ikur izan
zitekeena, orain axeri taldera
ongi etorria da. Eta aurrez ai-
patutakoan berresten dira,
ohiturak berregin behar direla
garaian garaia.

Badira jolas horren ingu-
ruan idatzi gabe dauden baina
herrian zabalduta dauden
kontakizunak ere. «Orratzakoa
du izena azaldu dugun jolas
horrek, garai batean azpitik
pasatzen zenak orratza zera-
man eskuetan traba egiten
ziotenengandik defendatzeko.
Esaten da urtean zehar hase-
rretzen ziren lagun taldeek jo-
las hori erabiltzen zutela on-
doren mendekua hartzeko».

Dantzaren zatiak aldatzeaz
gain, jantziak ere aldatu ziren;
kasu honetan, emakumeen

parte hartzearen ondoren emandako aldaketa izan zen. Egun, buruan zapi koloretsua janzten dute, blusa gorria, marradun galtzak eta alpargata zuriak. Lehen, galtza urdinak, abarkak eta blusaren azpitik alkandora zuria janzten zuten. «Entzunda dugunez, gizonak bakarrik egiten zuten soka dantza. Momentu batean blusa gorria kendu eta alkandora zuriarekin geratzen ziren soka dantza dantzatzeko. Emakumezkoak parte hartzen hasi zirenean, hasieran, erretiratu egiten ziren gizonak soka dantza egin behar zutenean; urrats bat egin zen emakumeek axeri-dantzan parte hartzeko, baina soka dantza aparteko zerbait zela esaten zuten. Etengabe berreraikitzen gabiltzanez, hausnartu genuen soka dantza 'axeri dantzago' bihurtzea; emakumeek ere dantzatu zezaten, batetik, eta blusa gorriarekin egin zezaten, bestetik, jolas zentzu handiagoa emate aldera», diote.

URTEBETEKO OSPAKIZUNA

Urteurrenaren harira, urte osoko egitaraua antolatu dute. Urtero bezala, otsailean puska biltzea egin zuten, eta martxoaren zortziaren testuingurua baliatuz mahai-inguru bat antolatu zuten, axeri dantzan ibilitako emakume ezberdinen esperientziak ezagutzeko. Erakusketaren irekierarekin batera, Andoaingo Udalak jakinarazi zien jaietako pregoia beraiek egingo dutela aurtengoan, eta hori ere pozez hartu zuten, «urteurrena biribiltzeko ederra izango da, aitor-tza bat izango da guri eskainia, eta guk baliatu nahi dugu urte hauetan guztietan egindako lanari aitortza egiteko».

Babestu beharreko kultur ondare gisa ere aitortu dute axeri dantza Adunako eta Andoaingo



udalek ikasturte honetan; eta hori ere berezia izan da. Kultur ondare bezala duen balioa aitortzeaz gain, parekidetasunean egindako urratsen balioa ere txalotu dutela sentitu dute. Etorkizunera begira ere urrats baliagarria dela azpimarratzen dute: «Egun osasuntsu dago axeri dantzak izan ditu oso garai zailak, emakumeak sartu aurretik jendeari telefonoz deika aritzen ziren 13-14 elkartzeko, eta orain osasuntsu dago, baina ez dakigu zer gertatuko den. Eta talde eragileak utziko balu edo gainbehera etorriko balitz, uda-

lak hori sustatzeko eta bultzatzeko ardura du. Aho batez bi udaletan onartu zuten, eta baliolan jartzeko zerbait da».

Urte guztiko egunik garrantzitsuen falta zaie oraindik, ekainaren 24a. Aurreikuspen batzuk egitera ausartu dira, halere, bi axeriak: «Lo gutxi egin da iritsiko dira asko goizean frontoian egingo dugun blusa banaketara, eta ondoren festa giroan dultzaineekin batera haiaiketako egitera joango gara. Horren ondoren entsegua egingo dugu, eta kalejiran plazara hurbilduko gara. 12.00etako

kanpaikadekin batera hasiko gara eta ordubete inguruz ibiliko gara dantzan». Hori izango da lehen zatia.

Ondoren, herri bazkaria antolatu dute; azken urteetan axeriek bakarrik bazkaltzen zuten elkarteren batean, eta talde izaera indartzeko baliagarria iruditzen zaien arren, aurtengoan herrira zabaldu nahi zuten. «Urtero ikusten egon diren horiekin, ibilitakoeekin, lagunekin eta senideekin ere ospatu nahi dugu aurtengoan» aitortzen dute. Inoizko axeri gehien bilduko dira aurtun, eta kontatzen dute badela urteurrenaren harira batu den jende bat, baita jada axeri dantza utzia zuten baina urteurrenaren aitzakian animatu den emakume talde bat ere, eta 84 axeri biltzeak ilusio handia egiten dietela kontatzen dute: «Dantza munduan ez da ohikoena horrelako oihartzuna izatea, gazteek parte hartzen duten ekimen bat da, euskaratik eta euskaraz, euskal kulturarekin lotua... egun osoko jaiaren formula horrek erakartzen du jendea». Bazkaritik aurrera, festak, dantzak eta axerieriek izango dute bere lekua, baina hori bertaratzen denak kontatu beharko du.

Berreskuratzea baino berregitea darabilte axeriek ahoz aho, berregiteak dakarren ardura eta askatasunarekin; garaian garaira berregiteak ematen die bultzada. Andoaingo Udaltzatzen 1844ko ekainaren 16n izan zuten zinegotziek axeri dantza hizpide lehen aldiz, erregistratuta geratu denez, behintzat: «*Se sacara y celebrara según costumbre el célebre baile del raposo o Azari-danza, nombrando como se nombra de capitán a Don Juan Bautista Larramendi*», dio aktak. Pentsa zenbat berregin duten, eta bizirik jarraitzen du.

Aipaturiko aldaketak eginda, axeri dantzako irudiak Andoaingo plazan, artxiboko irudia.
Juan Carlos RUIZ | FOKU